| **2018KO APIRILAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA** | **ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 27 DE ABRIL DE 2018** |
|---|---|

| LEHENDAKARI ERAGINKORRA | PRESIDENTE EFECTIVO |
|---|---|

P.N.V. – E.A.J. GONZALEZ PEREZ, Alvaro Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

| | |
|---|---|
| P.N.V. – E.A.J. | AGIRRE MUNOA, Amaia and. |
| GUK GETXO | AMIEVA CLEMENTE, Paula and. |
| GUK GETXO | ANDOLLO GONZALEZ, Susana |
| P.P. | ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | CORIA YANGUAS, Elena and. |
| P.P. | COS YAÑEZ, Susana de and. |
| P.N.V. – E.A.J. | EIGUREN ALBERDI, Keltse and. |
| EH BILDU | GUIJARRUBIA GARCIA, Nerea and. |
| P.P. | IBABE BOTELLA, Miguel jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn. |
| P.S.E./EE | LANDA ARTECHE, José Luis jn. |
| EH BILDU | RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn. |
| CIUDADANOS | SAINZ ROBLES, Santiago jn. |
| P.N.V. – E.A.J. | URIARTE GOMEZ, Irantzu and. |
| P.N.V. – E.A.J. | URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn. |

| BEHIN-BEHINEKO GERENTEA | GERENTE ACCIDENTAL |
|---|---|

MIÑAMBRES AMEZAGA, Aitor jn.

| GONBIDATUTAKO LANGILE TEKNIKOAK | INVITADOS PERSONAL TÉCNICO |
|---|---|

ALKORTA GARCIA, Patricia and.

| AZTERGAIEN ZERRENDA | ORDEN DEL DIA |
|---|---|
| -Deialdearen onarpen berezia | -Aprobación urgente de la convocatoria |
| -Kalitateko kirola sustatzeko, goi-mailako kirolarien kirola eta enplegagarritasuna sustatzeko zerbitzuen kontratua luzatu beharra 1. Zatia Erraketak: Tenis/Padel eta 2. Zatia Igeriketa Jarduerak. | -Prórroga de los servicios para la promoción deportiva y la empleabilidad de las personas deportistas de alto nivel para fomentar el deporte de calidad, mediante el desarrollo y ejecución de los cursos divididos en el Lote 1 – Raquetas: Tenis/Padel y Lote 2 – Actividades Acuáticas |

Getxon, 2018ko apirilaren 27an, arratsaldeko 12:15ean, ezohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Santa Clarako Batzar Aretoan (Getxoko Udaletxea), goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 12:15 horas del día 27 de abril de 2018 se reúne en sesión extraordinaria, en la Sala de Comisiones de Santa Clara (Ayuntamiento de Getxo), el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

Ibon Rodriguez: … bazegoen gai zerrenda bat ulertzen dugu Gai Zerrenda horretako lehenengo bi *Puntua*k

Ibon Rodriguez: … había un orden del día, entendemos, los dos primeros puntos de ese orden del

Gobernu Talde [...]* bakarra *Puntua*rekin ez daukatela zentzu haundiegirik harian, baina hurrengo [...], edo lau *Puntua*k, zentzua dutela uste dugu. Orduan, nahiko genuke Batzorde honetan eztabaidatzea. Eta honela ez bada, behintzat, hurrengo Batzordean sartzea. *Puntu* horiek zehazki ziren... esaten genuen... bai enpresa eta bai langileak entzun nahi genituela eta oraindik ere bai enpresak eta bai langileak entzun nahi ditugu. Eta baita ere eztabaidatu hahi genuen presidenteak Batzorde honekiko izan zuen jarrera.

día el Equipo de Gobierno [...] no tienen demasiado sentido con solo el punto, pero el próximo [...], o los cuatro puntos, creeemos que tiene sentido. Entonces, nos bastaría con discutirlo en esta Junta, Y si no es así, al menos, incluirlo en la próxima Junta. Estos puntos eran, concretamente... decíamos que queríamos escuchar tanto a la empresa como a los trabajadores y aún ahora queremos escuchar a ambos. Y también quisiéramos discutir la actitud que tuvo el presidente con respecto a esta Junta.

Orduan, gure ustez, premiazkotasuna zeukan bere momentuan premiazkotasun hori mantentzen dugu eta Ezohiko Batzorde bat egiten baldin bada premiazkotasun horrekin... eskertuko genuke Puntu horiek ere Gai Zerrendan sartzea.
Eskerrik asko.

Entonces, en nuestra opinión, mantenemos la urgencia que tenía en su momento y si se hace una Junta Extraordinaria con esa urgencia ... agradeceríamos que se incluyeran también esos puntos en el orden del día.
Gracias

Lehendakaria: segundo bat, erantzun egin nahi dut-eta. Argitzeagatik. Ez dakit zer-nolako zerikusia duen Zuzendaritza Batzorde honek Zuzendaritza Batzordeko bost kidek egin duten eskaerarekin; izan ere, proposamena lehendakariak egin du, soilik lehendakariak. Ados?

Presidente: Un segundo, porque quiero responder. Por aclarar. No sé qué tiene que ver este Consejo Rector con la petición que han cursado cinco miembros del Consejo Rector sino que es a propuesta del presidente, y solo a propuesta del presidente. ¿De acuerdo?

Eta egin duzuen beste eskaerarako, hamabost egun baliodun daude Zuzendaritza Batzordeari deialdia egiteko, eta deia egingo da, atzera egiten ez baduzue, behintzat. Hain zuzen ere, kasu honetan *Estatutuek* esaten duten epean eta egunean egingo da. Ados?

Y la otra petición que habéis solicitado hay quince días hábiles para convocar el Consejo Rector y se convocará, si es que no desistís de ello, se convocará en la fecha y en el plazo que los *Estatutos*, en este caso, estiman que se pueda hacer. ¿De acuerdo?

Paula Amieva: Gure aldetik, ez dugu ulertzen honako hau bezalako deialdia nola egiten ari den Getxo Kirolaken *Estatutuetan* ezartzen den 72 ordutik beherako epearekin, ohiko nahiz ezohiko deialdietarako. 24 ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin ere egin da.

Paula Amieva: Por nuestra parte, no comprendemos cómo es que una convocatoria como esta se está haciendo con menos de las 72 horas reglamentarias que se establecen en los *Estatutos* de Getxo Kirolak, tanto para aquellas convocatorias que son ordinarias como extraordinarias. Se hace incluso con menos de 24 horas de antelación.

Jakin nahi genuke zergatik dagoen mahuka zabala horrela egin ahal izateko orduan; izan ere, gainerako taldeek eskaeraren bat egin edo Lehendakariarengana zuzendu behar dugunean, *Estatutuetan* ezarritako bide zehatz batzuk jarraitu beharra izaten dugu. Eskerrik asko.

Nos gustaría saber por qué hay esta manga ancha a la hora de poder hacerlo así, cuando el resto de grupos cuando queremos hacer algún tipo de petición o dirigirnos al Presidente tenemos que seguir unos cauces concretos establecidos en los *Estatutos*. Gracias.

Lehendakaria: ados. Zuek beti ari zarete denak legezkoa izan behar duela esaten, eta deialdiari gehitutako txosten teknikoan hori guztia azaltzen da. Ni ez naiz gai horretan legelaria, baina txostena eskatu dut pentsatzen nuelako galdetuko zenidatela, eta zerbait badago, beti bezala, badakizue auzitegiak irekita daudela arrazoia nork duen argitzeko.

Presidente: De acuerdo. Vosotros que presumís siempre de que todo sea legal hay un informe jurídico que se adjunta a la convocatoria, donde se explica la cuestión. Yo no soy jurista en la materia, he pedido el informe, porque sospechaba que me preguntarías el porqué y si hay alguna cuestión, como siempre, están los tribunales abiertos para dilucidar quién tiene razón o no.

Edonola ere, *Estatutuen* eta *Toki Araubideko Oinarrien Legearen* arabera justifikatzen da.

En cualquier caso, se justifica en base a los *Estatutos* y en base a la *Ley de Bases de Régimen Local*.

Ez daukat ezer gehiago esateko. Lehendakaritzaren eskumenak dira, eta Estatutuetan alkatearen eskumenak jasotzen ez badira ere, eraman daitezke baita ere —Estatutuetan agertzen den moduan— Getxo Kirolaken Lehendakaritzara.

No tengo mucho más que decir. Son prerrogativas de la Presidencia, y en caso de no contenerse en los Estatutos propios prerrogativas del alcalde, trasladables —como dicen los Estatutos— también a la Presidencia de Getxo Kirolak.

123.- DEIALDIAREN ONARPEN BEREZIA

Ondorengo puntua bozkatu da

| | |
|---|---|
| Alde........................ | 16 (PNV-EAJ / PSE-EE / PP / GUK Getxo / EH-Bildu / C`s) |

123.- APROBACION URGENTE DE LA CONVOCATORIA

Se somete a votación el siguiente punto:

| | |
|---|---|
| A favor.................... | 16 (PNV-EAJ / PSE-EE / PP / GUK Getxo / EH-Bildu / C`s) |

124.- KALITATEKO KIROLA SUSTATZEKO, GOI-MAILAKO KIROLARIEN KIROLA ETA ENPLEGAGARRITASUNA SUSTATZEKO ZERBITZUEN KONTRATUA LUZATU BEHARRA 1. ZATIA ERRAKETAK; TENIS / PADEL ETA 2. ZATIA IGERIKETA JARDUERAK

124.- PRORROGA DE LOS SERVICIOS PARA LA PROMOCION DEPORTIVA Y LA EMPLEABILIDAD DE LAS PERSONAS DEPORTISTAS DE ALTO NIVEL PARA FOMENTAR EL DEPORTE DE CALIDAD, MEDIANTE EL DESARROLLO Y EJECUCION DE LOS CURSOS DIVIDIDOS EN EL LOTE 1 – RAQUETAS: TENIS/PADEL Y LOTGE 2 – ACTIVIDADES ACUÁTICAS

Lehendakaria: Puntu hau erabaki gabe geratu zen azken Zuzendaritza Batzordean.

Presidente: Este punto quedó en el último Consejo Rector.

Dakizuen moduan, luzapena onartu gabe geratu zen. Txostenean adierazitako moduan, egoerak aldatu egin dira. Deialdiarekin batera erantsi dizuegu Getxo Kirolaken zerbitzuen ematen dituen enpresaren eta langileen arteko akordioa eta akordioaren edukia.

Como sabéis, la prórroga no fue aprobada. Igual que como se indica en el informe, han cambiado las circunstancias. Os hemos adjuntado tanto el acuerdo como el contenido del acuerdo entre la empresa y los trabajadores y trabajadoras de la empresa que presta los servicios en Getxo Kirolak.

Ni ez naiz inor akordioaren gaineko azalpenak emateko. Nire ustez, egokitzat jotzen duzuen unean egingo da. Haiei zuzenean eskatu edo, horrela ikusiz gero, deitu egingo zaie bost kidek eskatu duten Zuzendaritza Batzordera etortzeko, haien iritziak edo akordioaren inguruko interesak azal diezazkiguten.

Yo no soy quien para dar explicaciones del acuerdo. Creo que será en el momento en que estiméis oportuno. Podéis pedírselas a ellos directamente, o si se estima, se convocarán en el Consejo Rector que han solicitado cinco miembros, para que expliquen sus opiniones, o sus intereses en el acuerdo.

Lehendakari honi dagokion bakarra da berriro Zuzendaritza Batzordera eramatea, egoerak aldatu izanagatik eta ikastaroak ematea interesatzeagatik, orain gatazka amaitu dela ikusita.

Lo único que corresponde a este presidente es someterlo de nuevo al Consejo Rector, habiendo cambiado las circunstancias, y en interés de que se presten los cursos, ahora que el conflicto ha finalizado.

Ibon Rodriguez: Guk, aurrekoan bezala, azaldu nahi dugu zein den gure bozkaren zentzua. Bozkaren zentzua ez da aldatuko gurea abstentzioa izango da.

Ibon Rodriguez: Nosotros, como anteriormente, queremos explicar el sentido de nuestro voto. No variará el sentido del voto, nosotros nos abstendremos.

Abstenitzen gara… aurretik esan genuen bezala… gu beti gaude zerbitzuak zuzenki prestatzearen alde… eta abstenitzen gara uste dugulako gauzak hobeto egin daitezkeerla. Baina es que oraintxe bertan abstenitzeko ere badaukagu beste aukera bat.

Nos abstenemos…como dijimos anteriormente… nosotros siempre estamos a favor de que los servicios se presten directamente… y nos abstenemos porque creemos que las cosas se pueden hacer mejor. Pero es que ahora mismo tenemos otra opción para abstenernos.

Lehenengo eta behin, zoriondu nahiko genituzke langileak, azken finean, borrokaren bitartez, gure ustez, lortu dutelako justiziazkoa den zerbait… nahiz eta agian beste gauza batzuk lortu zitezkeela…

En primer lugar, nos gustaría felicitar a los trabajadores, porque, al fin y al cabo, mediante la lucha, en nuestra opinión, han conseguido algo que es de justicia… aunque quizá podrían haber obtenido otras cosas…

Baina gure abstentzioarekin ere salatu nahi dugu gure ustez guztiz […] dena… eta aktan jasotzea nahi duguna… salatu nahi dugu Gobernu Taldearen jarrera, gure ustez, nahiz eta esan duen behin eta berriro gatazka horretan ez zuela parte hartu nahi… enpresa eta langileen arteko gatazka zela… gatazka horretan parte hartu zuen, ondoren hartutako batekin… mahai honetan azaldu gabeko erabaki batekin… nahiz eta gero komunkabideetan azaldu zuen…

Pero con nuestra abstención también queremos denunciar que, en nuestra opinión, totalmente […] todo… y lo que queremos recoger en el acta… queremos denunciar la actitud del Equipo de Gobierno que, en nuestra opinión, aunque ha repetido una y otra vez que no quería tomar parte en este conflicto… que era un conflicto entre la empresa y los trabajadores… tomó partido, con uno tomado posteriormente… con

eta gatazka horretan parte hartu zuten, eta langileek jarri zituen mehatxupean. Eta langileek pairatzen zuten mehatxuaren ondorioak, eta enpresak pairatu zitezkeen mehatxuen ondorioak guztiz [...] ziren beren garrantzian, nolabait esateko eta zentzu horretan, uste dugu Gobernu Taldeak parte hartu zuela gatazka horretan, langileern greba eskubideen kontra... eta hori nahi dugu oso ondo geratzea islatuta aktan.

una decisión no explicada en esta mesa...aunque luego lo explicó en los medios de comunicación... y tomaron parte en este conflicto y pusieron a los trabajadores bajo amenaza. Y los trabajadores sufrieron las consecuencias de las amenazas, y la empresa podría sufrir las consecuencias de las amenazas totalmente [...] su importancia, por decirlo de alguna manera y en este sentido, creemos que el Equipo de Gobierno participó en este conflicto, en contra del derecho a la huelga de los trabajadores... y queremos que todo eso quede bien reflejado en el acta.

Eta beste alde batetik ere salatu nahi dugu, gure ustez, Batzorde honetako presidenteak ez ziola Batzorde honi egia esan. Galdera zuzenean egin genion Batzorde hartan... azkeneko Batzordean galdera zuzena egin genion: ea nola geratu ziren ikastaroak... geratuko ziren ikastaroak. Eta presidenteak esan zuen ez zekiela. Ordu gutxi barru... ordu gutxi pasa eta gero... ez dakit bi ordura heldu zen... baina bazeuden jadanik komunikabideetan presidentearen adierazpenak. Eta presidentea adierazpen horietan, batetik, hemen Batzordean azaldu ez zuen zerbait esaten zuen; eta bestetik, ikastaroak bertan behera gera zitezkela esaten zuen... edo mehatxatzen zuen. Ondo [...], eta postan jadanik ikusten zen ere hor presidenteak hartutako erabakia Batzordearen inguruan, edo luzapen honen inguruan ez zela horrenbeste gatazka konpontzearen aldekoa, baizik eta gatazkaren alde bat presionatzearen aldekoa.

Y por otro lado también queremos denunciar que, en nuestra opinión, el Presidente de esta Junta no le dijo a esta Junta la verdad. En aquella Junta le hicimos preguntas directamente... en la última Junta le hicimos preguntas directas: que cómo habían quedado los cursillos ...quedarían los cursillos. Y el Presidente dijo que no sabía. A las pocas horas... pasadas pocas horas, no sé si llegó a dos horas... pero ya estaban las explicacioones del Presidente en los medios de comunicación. Y el Presidente en esas explicaciones dijo, por un lado,algo que no había dicho aquí en la Junta; y por otro lado decía... o amenazaba... que los cursillos se podían detener inmediatamente. Bien [...] y por el correo ya se veía también la decisión tomada por el presidente con respecto a la Junta o con respecto a la prórroga, que no era tanto a favor de resolver el conflicto sino a favor de presionar en beneficio de un lado del conflicto.

Zentzu horretan, txarto ikusten dugu Gobernu Taldeak hartu duen jarrera. Baina are txartoago ere ikusten dugu presidenteak, gure ustez, Batzorde honi galdera zuzen bati egiarekin ez erantzutea. Eta hau guztia nahiko genuke aktan jasotzea.

En este sentido, nos parece mal la actitud tomada por el Equipo de Gobierno. Pero todavía vemos peor que el Presidente, en nuestra opinión, no haya respondido a esta Junta a una pregunta directa con la verdad. Y quisiéramos que todo esto se reflejara en el acta.

Paula Amieva: guri dagokigunez, GUK taldeak galdera batzuk egin nahi dizkio lehendakariari hemendik aurrera zeintzuk izango diren irtenbideak jakitearren.

Paula Amieva: Por nuestra parte, desde GUK quisiéramos trasladar algunas cuestiones al presidente, para saber cuál van a ser a partir de ahora las posibles soluciones.

Hain zuzen ere, loteen hurrengo lizitazioan sartuko al da enpresa esleipendunaren eta langileen artean egindako akordioa?

¿Se van a incluir en los pliegos de la próxima licitación de los lotes el acuerdo alcanzado entre la empresa adjudicataria y los trabajadores?

Lehendakaria: orain erantzun beharra dut?

Presidente: ¿Tengo que responder ahora?

Paula Amieva: bai, mesedez.

Paula Amieva: Sí, por favor.

Lehendakaria: uste dut hor idatzita dagoela. Jakina baietz.

Presidente: Pues creo que está escrito ahí. Efectivamente.

Paula Amieva: ez... Hor jartzen du Getxo Kirolakera eraman behar dela.

Paula Amieva: No... Ahí pone lo que pide que se va a trasladar a Getxo Kirolak...

Lehendakaria: hor jartzen du legeak zer esaten duen; alegia, zer egin behar dudan. Badakizue legeak zer esaten duen.

Presidente: Ahí pone lo que dice la ley que tengo que hacer. Sabéis lo que dice la ley.

Paula Amieva: ados... Guk galdetuko dugu: akordioa sartuko da?

Paula Amieva: Bien... Nosotros preguntamos: ¿se va a incluir?

Lehendakaria: Legeak esaten duena egingo dut. Legeak esaten al du subrogazio-baldintzak sartu behar ditudala? Orduan hori egingo dut.

Presidente: Haré lo que me diga la ley. ¿La ley dice que tengo que incluir las condiciones de subrogación? Es lo que voy a hacer.

Paula Amieva: ez dakigu hori "bai" ala "ez" den. Errazagoa litzateke "bai" ala "ez" esatea.

Lehendakaria: erantzun dizut. Zergatik erantzun behar dut zuk nahi duzuna?

Paula Amieva: ez da nik nahi dudana...

Lehendakaria: zuk nahi duzuna galdetzen duzu, eta nik nahi dudana erantzuten dut.

Paula Amieva: Alvaro, lehen Estatutuetaz galdetu dudan moduan, ez dira aipatu Zuzendaritza Batzorde honetako guztiok jarraitu behar genituzkeen *Estatutuak,* badirudi Lehendakariak *Estatutuetan* jartzen duenaren modu ezberdinean jokatzen duela. Akordioa pleguetan sartuko den ala ez galdetutakoan, erraza da "bai" edo "ez" esatea.

Badakigu zer jartzen duen legean, badakigu zer jartzen duen akordioan, eta erantzuna ematea erraza da.

Lehendakaria: jakina. Bada legedia beteko dut.

Paula Amieva: zer-nolako neurriak hartzea pentsatzen du lehendakariak behingoz behar adinako aurrerapenarekin aurreikusteko kontratuen luzapenak, kontratua amaitzeari itxaroten egon gabe? Eta zenbat eguneko epean emango dio horren berri Zuzendaritza Batzordeari?

Lehendakaria: ez dut inolako konpromisorik hartuko. Legearen araberako epeak beteko ditut. Kontratua indarrean dagoen bitartean eta luzapena onartzeko indarraldian nabilen artean...

Paula Amieva: lehendakariak zer-nolako irizpideak edo elementuak hartzen ditu kontuan honako hau bezalako kontratuen luzapena onartzeko edo ez onartzeko? Erabaki horiek hartzeko erabiltzaileen iritziak, zerbitzuaren eraginkortasuna edo langileen baldintzak kontuan hartzen al dira? Eta kontratu bakoitzeko txosten espezifikoa egiten da edo, besterik gabe, automatismo hutsak jokatzen dugu?

Lehendakaria: luzapena proposatzen duen txosten tekniko bat egoten da, eta teknikariek inkestak egiten dituzte erabiltzaileen eta interesatuen artean, eta gainerakoa suposatu egiten da. Baina berriro diot kontratu hau Zuzendaritza Batzorde honen eskumena dela, ez lehendakariarena. Lehendakariak Batzordera ekartzeko betebeharra du... betebeharra. Ez du berak nahi duelako ekartzen.

Paula Amieva: lehendakariak konpromisoa hartuko al luke Zuzendaritza Batzordeko kideekin batera instrukzio bat idazteko eta adostasunez onartzeko, 2018ko martxoko Mozioan Osoko Bilkuran gure taldeak eskatu zuenarekin bat eginez, kontratazio-prozeduretan esleipen-irizpideak eta izaera sozialekoekin betetzekoak ezartzeko, eta, zehatzago esanda, erabaki genuen guztiok [...]?

Lehendakaria: hori ez genuen Mozioan onartu.

Paula Amieva: No sabemos si eso es un "sí" o un "no". Sería más fácil un 'sí' o un 'no'.

Presidente: Te he respondido. ¿Por qué tengo que responder yo lo que tú quieres?

Paula Amieva: No es lo que yo quiera...

Presidente: Tú preguntas lo que quieres, y yo respondo lo que quiero...

Paula Amieva: Álvaro, igual que antes he preguntado por los Estatutos que no se ha hecho alusión a los *Estatutos* que deberíamos seguir todos y todas en este Consejo Rector, y que parece que el presidente siempre tiene una forma de actuar diferente a lo que está establecido en los *Estatutos* cuando se hace una pregunta de si se van a incluir o no en los pliegos ese acuerdo, es fácil decir "sí" o "no".

Ya sabemos lo que pone en la ley, ya sabemos lo que pone el acuerdo y es fácil la respuesta...

Presidente: Por supuesto. Pues cumpliré la legislación.

Paula Amieva: ¿Qué medidas piensa adoptar el presidente para que de una vez por todas se prevea con antelación suficiente las prórrogas de los contratos sin esperar a su inmediata expiración por cumplimiento? ¿Y en qué plazo se compromete a dar cuenta al Consejo Rector de las mismas?

Presidente: No me comprometo a nada. Y cumpliré los plazos conforme a la ley. Mientras esté dentro de vigencia del contrato y la vigencia de la aprobación de la prórroga...

Paula Amieva: ¿Qué criterios o elementos se tienen en cuenta por el presidente para aprobar o no la prórroga de contratos como los que nos ocupan? ¿Se tienen en cuenta opiniones de usuarios, eficiencia del servicio o condiciones de los trabajadores para adoptar estas decisiones? Y si se elabora un informe específico para cada contrato, o simplemente nos dejamos llevar por el mero automatismo.

Presidente: Hay un informe técnico, que propone la prórroga, y los técnicos hacen sus consecuentes encuestas entre usuarios y demás personal interesado y lo demás se supone. Pero sigo insistiendo que este contrato es competencia de este Consejo Rector; no es competencia del presidente. El presidente tiene obligación de someterlo... obligación. No es a su elección.

Paula Amieva: ¿Se compromete el presidente a redactar y aprobar en consenso con los vocales del Consejo Rector una instrucción para establecer, en línea con lo que solicitamos desde nuestro grupo en la Moción de marzo de 2018, en el Pleno, para establecer criterios de adjudicación y ejecución de carácter social en los procedimientos de contratación, y más en concreto, todos los que dispusimos [...]?

Presidente: Eso no fue lo que aprobamos en la Moción.

Paula Amieva: nola ez genuela hori Mozioan onartu?

Lehendakaria: hori ez genuen Mozioan onartu. Mozioan onartu genuen Udalak instrukzio bat idatziko zuela irizpide sozialak sartzeko.

Paula Amieva: eta hau […] galdera.

Lehendakaria: Mozioan esaten denarekiko konpromisoa hartuko dut; hau da, instrukzioa idaztea.

Paula Amieva: beharbada ez dut ondo azaldu: galdetu nahi dut instrukzioa idazteko eta onartzeko konpromisoa hartuko duen.

Lehendakaria: beharbada ez dut ondo azaldu. Konpromisoa hartuko dut Mozioan konpromisoa hartutakoa betetzeko.

Paula Amieva: Lehendakariak konpromisoa hartuko du zenbait zerbitzu berriz udalekotzeko, aldez aurretiko azterketa ekonomikoak ikusita, zerbitzua eraginkorragoa eta/edo kostu baxuagokoa bada, Getxo Kirolakek zuzenean emanda?

Lehendakaria: ez.

Paula Amieva: inola ere ez?

Lehendakaria: ez dakit hau galdeketa edo Zuzendaritza Batzordea den.

Paula Amieva: lehendakariari galderak egiteko eskubidea badugu, ezta?

Lehendakaria: noski baietz. Baina nik ere hori erantzun dezaket.

Paula Amieva: tira, […] ez dakit. Zuzendaritza Batzorde batean nago eta nire ustez, […].

Lehendakaria: bai, bai. Jarraitu. Galdetzeko eskubidea duzu. Inolako arazorik gabe.

Paula Amieva: hemen aipatzen ari garen luzapenaren bozketan, Zuzendaritza Batzordearen urte honetako apirilaren 17ko bileran, lehendakariak bozketa hasi zuen aurkako botoekin, bozketa aldeko botoekin hasteko ohiko praktika hautsiaz, eta, gaur, oker ez banago, premiazkotasuna bozkatzeko berdina gertatu da. Era horretan jokatzeak luzapen-proposamen bat Zuzendaritza Batzordera eramateko erantzukizunetik ihes egiteko estrategia-motaren bati erantzuten dio?

Lehendakaria: ez.

Paula Amieva: eta zergatik egin zen horrela?

Lehendakaria: egun horretan horrela nahi nuelako. Zer nahi duzu erantzutea?

Paula Amieva: ez dela zerbait ohikoa, eta ohikoa ez izatean, […].

Paula Amieva: ¿Cómo que no fue lo que se aprobó en la Moción?

Presidente: Eso no fue lo que aprobamos en la Moción. Se aprobó en la Moción que el Ayuntamiento redactaría una instrucción para incluir los criterios sociales.

Paula Amieva: Y esto […] la pregunta.

Presidente: Lo que se dice en la Moción es a lo que me comprometo: a que se redacte la instrucción.

Paula Amieva: Igual es que no me he explicado bien… la pregunta es si se compromete a redactar y a aprobar una instrucción…

Presidente: Igual no me he explicado yo bien. Me comprometo a lo que me comprometí en la Moción.

Paula Amieva: ¿Se compromete el presidente a valorar la posible remunicipalización de determinado servicios, si a la luz de los estudios económicos previos resultase que el servicio fuese más eficiente y/o de menor coste, si fuese prestado de manera directa por Getxo Kirolak?

Presidente: No.

Paula Amieva: ¿En ningún caso?

Presidente: Yo no sé si esto es un interrogatorio o un Consejo Rector.

Paula Amieva: Tenemos derecho a hacer preguntas al presidente, ¿verdad?

Presidente: Por supuesto. Pero yo puedo responder esto también.

Paula Amieva: Bueno, […] no sé. Estoy en un Consejo Rector, y creo que […].

Presidente: Sí, sí. Continúa. Tienes derecho a preguntar. Sin ningún problema.

Paula Amieva: En la votación de la prórroga que nos ocupa, en la sesión del Consejo Rector del 17 de abril, de este mismo año, el presidente comenzó la votación por los votos en contra, rompiendo así la práctica habitual de comenzar las votaciones con el voto a favor y de hecho hoy, para votar la urgencia, si no me equivoco, ha sido igual. ¿Es inusual proceder responde a algún tipo de estrategia para escapar a su responsabilidad de elevar al Consejo Rector una propuesta de prórroga?

Presidente: No.

Paula Amieva: ¿Y por qué se hizo así?

Presidente: Porque ese día me apetecía. ¿Qué quieres que te responda a eso?

Paula Amieva: Pues que no es algo habitual, y al no

ser algo habitual, […].

Lehendakaria: baina Lehendakariaren eskumena da… gauza bera… Lehendakariaren eskumena da bozketa hastea komenigarri uste duen moduan, eta egun hartan horrela egitea komeni zela uste izan nuen.

Presidente: Pero es prerrogativa del presidente… lo mismo… es prerrogativa del presidente iniciar la votación como crea conveniente y ese día creí conveniente hacerlo de esa manera.

Paula Amieva: luzapen hau onartzen ez bada, tenis eta padeleko ikastaroak eta urpeko jarduerak bertan behera geratuko dira?

Paula Amieva: De no aprobarse esta prórroga, ¿se van a suspender los cursos de tenis y pádel y de actividades subacuáticas?

Lehendakaria: bistakoa da ez dagoela estaldura ematen dion kontraturik. Ez da funtsezko zerbitzua, oinarrizkoa edota derrigorrezkoa, eta ez dago argumentu juridikorik, edo gutxienez gaur arte ez didate horrelakorik eman zerbitzu hori eman ahal izateko.

Presidente: Es evidente que no hay contrato que le dé cobertura. No se trata de un servicio esencial, básico ni obligatorio, y no hay argumento jurídico, o por lo menos no me lo han dado hasta el día de hoy para poder prestar ese servicio.

Paula Amieva: orduan, gure ustez, ikastaro horietan izena emandako erabiltzaileei dirua itzuliko litzaieke.

Paula Amieva: Entonces, se devolvería el dinero a los usuarios inscritos en dichos cursos, entendemos.

Lehendakaria: greba-egunetako dirua itzuliko da, eta, gainera, maiatza ez zaio inori fakturatu.

Presidente: El dinero de los días de huelga se va a devolver, y de hecho no se ha facturado el mes de mayo a nadie.

Paula Amieva: ikastaroak ematen ez badira esan nahi dut […].

Paula Amieva: Digo en caso de que no se den los cursos […].

Lehendakaria: berriro diot maiatza ez zaiola inori fakturatu. Beraz, soilik itzuli behar zaie grebaren ondorioz jasan duten pertsonei.

Presidente: Repito que no se ha facturado el mes de mayo a nadie. Por lo tanto, solo hay que devolverlo a aquellas personas que se han visto afectadas por la huelga.

Paula Amieva: eta azken galdera. Getxo Kirolakek irailean ikastaro horiek ematea ziurta al dezake? Edo, beste era batera esanda: irailerako bermatu al liteke 1. eta 2. Loteak esleituta egotea?

Paula Amieva: Y última pregunta. ¿Estaría Getxo Kirolak en disposición a asegurar la prestación de esos cursos en el mes de septiembre? O, dicho de otra manera: ¿se puede garantizar que para el mes de septiembre ya estarán adjudicados los Lotes 1 y 2?

Lehendakaria: irailean ez da ikastarorik egongo, inoiz ez dira egon eta; urriaren 1ean esleituta egon beharko luke. Eta baita ere esango dizut bermatuko diren bakarrak, esleituta egon ala ez, 1. eta 2. Loteak direla, proposatzen den luzapena kontratu berria sinatzen den bitartekoa delako.

Presidente: En el mes de septiembre no hay cursos, porque no los ha habido nunca, debería estar adjudicado el 1 de octubre. Y también te digo que los únicos que se van a garantizar que se presten, estén adjudicados o no, son el Lote 1 y Lote 2, porque la prórroga que se propone es hasta la firma del nuevo contrato.

Paula Amieva: jakina. Diogu ea irailerako jada plegu berriak egongo diren, hori eskatzen ari baitira baita ere […].

Paula Amieva: Claro. Lo que estamos diciendo es si para septiembre va a haber ya nuevos pliegos, que es lo que están pidiendo también los […].

Lehendakaria: plegu berriak egon beharko dute jada, baina gatazka medio ez daude. Izan ere, gatazkaren emaitzak pleguetan eragina du.

Presidente: Los nuevos pliegos ya deberán de estar, pero a causa de este conflicto no han podido estar. Porque, evidentemente, el resultado del conflicto afecta a los pliegos.

Orduan, pleguak daudenean, berriro Zuzendaritza Batzordera eramango ditut, Zuzendaritza Batzordearen eskumena baita horiek onartzea eta prozedurari hasiera ematea. Eta iristen bagara? Jakina, iristen ahaleginduko gara.

Entonces, cuando estén los pliegos, los someteré de nuevo al Consejo Rector porque es competencia del Consejo Rector aprobarlos e iniciar el procedimiento. ¿Y si llegamos? Pues intentaremos llegar, evidentemente.

Paula Amieva: ados. Eskerrik asko.

Paula Amieva: Vale. Gracias.

Lehendakaria: beste galderarik?

Presidente: ¿Alguna pregunta más?

Jose Luis Landa: ez dira galderak. Iruzkin pare bat egin

José Luis Landa: No es pregunta ¿Puedo hacer un par

ditzaket?

Lehendakaria: bai, noski.

Jose Luis Landa: Lehendakariak ondo defendatzen du bere burua berak bakarrik. Nire ustez, Amieva epailearen tonua galdeketa jasanezina izan da eta tonu nahiko onartezina erabili du. Nire iritzi pertsonala da.

Ibonek esan duenari dagokionean, Lehendakariaz aritu da, Gobernu Taldeaz eta… Niri gustatuko litzaidake argi geratzea eta horregatik diot, Gobernu Taldeak ez duela inoren alde jokatu. Gobernu Taldeak ez die mehatxurik egin langileei. Eta Gobernu Taldearen asmoa ez da izan grebarako eskubidea urratzea edo eztabaidatzea. Kito. Inork ez du esan… Ni pozten naiz langileak eta enpresa akordio batera iritsi direlako, eta uste dut inor ez dela poztu orain arte. Eskerrik asko.

Ibon Rodríguez: Lehenengo eta behin, esan behar dut gauza bat… eta errespetuari dagokio… eta seguru asko presidentea gai dela bere burua bakarrik defendatzeko, eta nik suposatzen dut GUK Taldekoak gai direla beraie bakarrik defendatzeko. Baina ez da […], adibidez, talde politiko zehatz bat kexatzen dela beste talde politiko batzuek egiten dituzten galderekin. Horiei eskatuko nieke errespetua.

Errespetua eskatuko nuke ere GESTAPO bezalako […] heltzen direnean, galderak egiten direnean honen inguruan galderak egin ditzakegun leku bakoitz bakarrean… goratzen dizut… eta egin dezakegun gauza bakarrarekin: galderekin. Beraz, zentzu horretan errespetua eskatuko nieke guztiei. Baina […] jaunari eta baita zuri ere.

Eta baita eskatuko nuke errespetua ere momentu batean… niretzat, ez da errespetua… nahiz eta esan nahi dena hori den… ez da errespetua esatea "Porque me ha apetecido". Presidenteari ere eskatuko nioke errespetua.

Eta hau bukatuta, esango dizut gauza bat. Zuk saldu dezakezu Gobernu Taldeak aurrera eraman zuen estrategia nahi duzun bezala. Baina Gobernu Talde horren estrategiaren bozeramailean, nolabait esateko, presidente izan daiteke. Eta presidenteak hirutan… egun berean… Batzordea egin zen egun berean argitaratu zuen hitzak batzuk ziren… hor iragartzen zituen jadanik ikastaroak bertan behera gertatuko zirela, hirutan… egun berean… Batzordea bukatu eta berehala… eta hemen esan eta gero ez zekiela zer egin behar zuen… eta El Correo egunkarian, hurrengo egunean, presidenteak esaten zuen […] gauza berriro presidenteak […] zuen gauza. Eta guretzat… zure ikuspuntutik ez… guretzat, Gobernu Taldeak egin duena izan da greba eskubidearen kontrako ekitaldi bat.

Zuk ontzat hartzen duzula? Oso ondo… Guk ez dugu ontzat hartzen. Aktan jasoko da zure iritzia zein nere iritzia. Desde luego, ezin dugu frogatu zein izan den bata eta zein izan den bestea. Argi daukaguna da… guk, behintzak… aurreko Batzordean gertatu zena, eta ondoren

de comentarios?

Presidente: Por supuesto.

José Luis Landa: El presidente se defiende bien solo. A mí me parece que el tono de la intervención del juez Amieva me ha parecido un insoportable interrogatorio, y en un tono bastante inaceptable. Es mi opinión personal.

Por cuanto a lo que ha dicho Ibón ha hablado del presidente, del Equipo de Gobierno y tal… A mí me gustaría que quede claro y por eso lo digo, que el Equipo de Gobierno no ha tomado partido por ninguna de las partes. El Equipo de Gobierno no ha amenazado a los trabajadores. Y el Equipo de Gobierno no ha pretendido conculcar ni cuestionar el derecho de huelga. Punto. No ha dicho nadie… Yo sí me alegro ahora de que trabajadores y empresa hayan llegado a un acuerdo y creo que nadie se ha alegrado hasta ahora. Eskerrik asko.

Ibon Rodríguez: En primer lugar, he de decir una cosa… y en lo que se refiere al respeto… y con toda seguridad que el presidente es capaz de defenderse a sí mismo él solo, y yo supongo que los del gurpo GUK son capaces de defenderse solos. Pero no es […], por ejemplo, que un grupo político concreto se queja de las preguntas que realizan otros grupos. A eso le pediría respeto.

Pido respeto también cuando llegan […] como la GESTAPO, cuando se hacen preguntas a este respecto en el único lugar en el que podemos hacer preguntas… te lo recuerdo… y con la única cosa que podemos hacer: con preguntas. Por tanto, en este sentido pediría respeto a todo el mundo. Pero […]señor, también a usted.

Y también pediría respeto en un momento… para mí, no es respeto… aunque eso sea todo lo que quiero decir… no es respeto decir "porque me ha apetecido". Al presidente también le pediría respeto.

Y terminado esto, te diré una cosa. Puedes vender la estrategia llevada a cabo por el Equipo de Gobierno como quieras, pero la estrategia en la portavocía de este Equipo de Gobierno, por decirlo de alguna manera, puede ser el presidente. Y el presidente en tres ocasiones… en el mismo día…Las palabras que publicó en el propio día en que se realizó la Junta fueron algunas… ahí anunciaba ya que los cursillos pararían inmediatamente, en tres ocasiones… en el mismo día… Tan pronto como terminó la Junta… y después de decir aquí que no sabía qúe debía hacer… y en el periódico El Correo, al día siguiente, el presidente decía […] de nuevo la cosa el presidente […]. Y para nosotros… desde tu punto de vista no… para nosotros lo que ha hecho el Equipo de Gobierno es una acción en contra del derecho a la huelga.

¿Tú lo admites? Muy bien… Nosotros no lo damos por bueno. En el acta se recogerá tanto tu opinión como mi opinión. Desde luego, no podemos probar cuál ha sido una y cuál ha sido la otra. Lo que tenemos claro es… nosotros, al menos… lo que ocurrió en la

gertatu zena, estrategia baten ondorioa zela... ez zela bertan gertatutako zerbait.

anterior Junta y lo que sucedió después que era consecuencia de una estrategia... no era algo ocurrido súbitamente.

Eta berriro esaten dut: hain bozka arraroa eman zenutela, baina inolako azalpenik ez. Azalpenak gero komunikabideetan entzun behar izan genituen.

Y lo digo de nuevo, que disteis un voto muy extraño, pero sin ningún tipo de explicación. Las razones tuvimos que escucharlas después en los medios de comunicación.

Beraz, gero landu ditzakezu gauzak nahi duzuen moduan.

Así pues, luego puedes elaborar las cosas como queráis.

Eta azkeneko gauza... Nik gogoratu nahi diot Udal Talde honi ere... orain esan duen gauza baten harira... Udal Talde honek esentzialak ez diren zerbitzuak prorrogatu dituela, kontraturik gabe, kontratua bukatuta zegoelako. Ez Udal Talde honek... barkatu... aurreko legealdian... baina bai Eusko Alderdi Jeltzalea. Zerbitzu batzuk prorrogatu izan dira, eta horren faktura Plenotik pasatu izan dira hori egin gabe zegoelako. O sea, oraindik kontratua bukatuta zegoela. Esentzialak ez ziren zerbitzuak ari gara, eh? [...], esaterako.

Y la última cosa... Yo quiero recordarle también a este Equipo Municipal... al hilo de una cosa que ha dicho ahora... que este Equipo Municipal ha prorrogado servicios que no son esenciales, sin contrato poque este está extinto. No este Equipo Municipal... perdón...en la legislatura anterior... pero sí el Partido Nacionalista Vasco. Se han prorrogado algunos servicios y sus facturas se han pasado por el Pleno porque eso estaba sin hacer. O sea, porque todavía estaba finalizado el contrato. Hablamos de servicios que no eran esenciales, ¿eh?, [...], por ejemplo

Beraz, irizpideak suposatzen dut berdinak izango direla kasu batzuetan eta [...]... ala irizpideak... ez dakit...

Así pues, los criterios supongo que serán nuevos en algunos casos y [...]... o los criterios...no sé.

Bueno, guk badakigu zer aldatzen [...] bakoitzak nahi duenaren arabera. Eskerrik asko.

Bueno, nosotros sabemós qué cambia [...] según quiere cada uno. Muchas gracias

Jose Luis Landa: gauzatxo bat. Barkamena eskatu nahi dut "GESTAPO" hitza erabiltzeagatik. Mikrofonoa itzalita nuen, baina oso ondo entzun da. Barkatzeko eskatu nahi dizut.

José Luis Landa: Una cosita quiero decir. Pido disculpas por el término "GESTAPO". Estaba fuera de micrófono, pero se ha oído perfectamente. Te pido que me perdones.

Baina esandakoa berresten dut: galdeketa jasanezina izan da eta tonua onartezina.

Pero lo que sí mantengo es lo que he dicho: que es un insoportable interrogatorio, y también un tono inaceptable.

Barkatu "GESTAPO" hitza erabiltzeagatik.

Perdón por lo de "GESTAPO".

Paula Amieva: jasanezina izatea ala ez eta galderak egiteko modua eta tonua zerbait subjektiboa da.

Paula Amieva: El que sea insoportable o no, y la forma de plantear las preguntas y el tono, es algo subjetivo.

Nik errespetuarekin esan dut, eta, nire ustez, Ibonek esan duen moduan, hemen, hain zuzen ere, galdetzeko gaude, lehendakariak ere bere ikuspegia, iritzia eta irizpide teknikoak edo politikoak emateko, eta, horregatik, hemen egiten ditugu. Beste leku batean galdetuz gero, leku egokian ez gaudela esaten digute. Gaur, hemen leku egokian gaude. Tonuaren kontua bakoitzak nola hartzen duen da. Baina, egia esan, GUK taldean beti errespetuz jokatu dugu eta komenigarritzat jotzen dugun lekuan. Lehendakariak erantzuna nahi duen tonuan emateko edo ez emateko eskubidea duen bezala eta hark egokitzat jotako pertzepzioekin, guretzat hobeak edo okerragoak izan, baina horrek subjektiboa izaten jarraitzen du.

Yo lo he hecho desde el respeto, y creo que —como decía Ibón— estamos en un espacio precisamente para preguntar, para que el presidente pueda también exponer su punto de vista, su opinión y sus criterios técnicos o políticos, y precisamente por eso las traemos aquí. Si las hacemos en otro espacio, se nos dice que no estamos en el espacio correcto. Hoy sí estamos. El tema del tono es cómo lo percibe cada persona. Pero desde luego en GUK siempre lo hemos hecho desde el respeto, y en el espacio que creemos conveniente. Igual que el presidente tiene derecho a contestar o no en el tono que quiera, y con las percepciones que él considere, que podemos considerar mejores o perores pero sigue siendo algo subjetivo.

Eta kontua ez da GESTAPO izatea. Ez... Zer da, galdetegi luzeagoa edo laburragoa dela, eta horregatik deserosoagoa dela? Hori ere hemen egon daitekeen pertsona bakoitzaren hautematea da. Beraz, ez dugu uste jasanezina edota

Y ya no es ser GESTAPO. No... ¿Qué pasa, que es un cuestionario más largo o menos largo, y por eso se hace más incómodo? Eso también es una percepción de cada una de las personas que puedan estar aquí.

GESTAPOren hurbileko zerbait izan denik, ezta antzeko ezer ere. Egokitzat jotzen ditugun galderak egin ditzakegu, horrela egiten ari gara, eta helburua ez da soilik luzapen hori kontuan izatea... Azken finean, bi hilabete dira, irailera bitarte proposatzen delako, baina, jakina, jakin nahi dugu aurrerago zer gertatuko den: pleguek langileak baldintza duinetan ziurtatuko dituzten, enpresaren eta langileen arteko akordioaren barnean eskatutakoarekin jarraituko den,... Gure ustez, zerbait logikoa da, eta, horregatik, hemen aurkezten dugu, hau baita horretarako leku egokia, eta galderak egiten dizkiogu lehendakariari, lehendakariarengana zuzendu behar da-eta. Kito. Eskerrik asko.

Lehendakaria: espero dut nik esango dudana azkena izatea, amaitzen joateko.

Soilik argitu nahi nuke Zuzendaritza Batzorde honen eta aurrekoaren inguruan ibili den kontu bat. Organo hau kolegiatua da. Horrek esan nahi du denok garela hartzen diren erabakien erantzule. Gobernu Talde gisa, abstenitzeko edota aldeko botoa edo kontrakoa emateko eskubidea dugu. Gure botoa azaltzeko eta ez azaltzeko eskubidea dugu.

Beraz, proposamen batean botoa ematea erabaki badugu, ekarri beharreko proposamenarena, Zuzendaritza Batzordearen eskumena izateagatik... Alegia, proposamena ez da Lehendakariarena. Proposamena Lehendakariak ekartzen du, baina ez da gauza bera. Eta Zuzendaritza Batzordearen eskuetan uzten d u. Jarrera bat izan dezakegu, nik ekartzen dudan ala ez alde batera utzita. Jarrera bat izan dezakegu. Edo soilik oposizioak al du eskubidea hiru boto-aldaeraren edo aukeraren artean hautatzeko? Ez. Gobernu Taldeak ere hauta dezake hiru boto-aukeraren artean. Zergatik? Zeren soilik lehendakariaren gauza izango balitz, begien bistakoa da Lehendakariak baiezko botoa eman beharko lukeela. Baina ez da Lehendakariarena. Lehendakariak Zuzendaritza Batzordera ekartzen duen proposamena da. Beraz, erabaki bat hartzen du. Eta erabakia une horretako egoera ikusita hartzen du, Zuzendaritza Batzorde premiazkoa eta ezohikoa proposatzen duenean bezala, une horretako gorabeherak ikusita. Besterik ez.

Eta norbaitek zerbait gehiago esan nahi badu eta bozketari ekiten badiogu... Hortaz, bozketa egingo dugu?

| | |
|---|---|
| Alde.................... | 8 (PNV-EAJ / PSE-EE) |
| Abstentzioak ........ | 8 (PP / Guk Getxo / EH-Bildu / C`s) |

Ondorioz, onartu egin da 1. eta 2. Loteen luzapena, eta Zuzendaritza Batzordea amaitutzat eman da.

Beste gairik gabe, saioari amaiera eman zaio akta honetako goiburuan aipaturiko eguneko 12:45ean.

Lehendakaria / El Presidente

Con lo cual, no creemos que haya sido ni insoportable, ni cercano a la GESTAPO, ni nada por el estilo. Podemos plantear las preguntas que creemos oportunas, así lo estamos haciendo y el objetivo es no solamente tener en cuenta esta prórroga, para... al final son dos meses, porque se plantea hasta septiembre pero claro, queremos saber qué va a ocurrir más allá: si los pliegos van a poder asegurar a los trabajadores y trabajadoras en unas condiciones dignas, si se va a seguir también con lo que se ha pedido dentro de ese acuerdo entre la empresa y los trabajadores. Creemos que es algo lógico, y por eso lo presentamos aquí, que es el espacio adecuado, y con preguntas al presidente, que es a quien hay que dirigirse. Ya está. Gracias.

Presidente: Espero que sea mi intervención... para terminar ya.

Yo solo quiero aclarar una cuestión que ha estado rondando este Consejo Rector y el anterior. Este órgano es colegiado. Esto quiere decir que somos todos responsables de las decisiones que se toman. Tanto tenemos derecho como Equipo de Gobierno a abstenernos, a votar a favor y a votar en contra. Tenemos derecho a explicar nuestro voto y a no explicarlo.

Entonces, si hemos decidido votar en una propuesta, que tengo que traer, porque es competencia del Consejo Rector... Es decir, la propuesta no es del Presidente. La propuesta la trae el Presidente, que no es lo mismo. Y la somete al Consejo Rector. Podremos tener una postura, independientemente de si la traigo o no. Podremos tener una postura. ¿O es que solamente la oposición tiene derecho a elegir entre las tres variedades o posibilidades de voto? Pues no. También el Equipo de Gobierno puede elegir entre las tres posibilidades de voto. ¿Por qué? Porque si fuera una cuestión exclusiva del presidente, es obvio que el Presidente tendría que votar que sí. Pero no es del Presidente. Es una propuesta que trae el presidente a competencia del Consejo Rector. Por tanto, toma una decisión. Y toma una decisión vista las circunstancias en ese momento. Igual que propone un Consejo Rector urgente y extraordinario, vistas las circunstancias de ese momento. Nada más.

Y si alguien más quiere intervenir, y podemos pasar a la votación... ¿Pasamos a la votación, entonces?

| | |
|---|---|
| A favor.................... | 8 (PNV-EAJ / PSE-EE) |
| Abstenciones ........ | 8 (PP / Guk Getxo / EH-Bildu / C`s) |

Pues se da por aprobada la prórroga de los Lotes 1 y 2, y por terminado este Consejo Rector.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 12:45 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Behin-behineko gerentea / Gerente accidental